

Ermuko gazte kristauak, Hirugarren Munduaren laguntzaile

Ermuko elizan badago 15 eta 30 urte bitarteko 130 neska-mutil biltzen dituen gazte mugimendua; guzti hauek fedea eta militantziari zuzenduriko kristau has-tapeneko prozesuak burutzen dituzte. Gazte hauek astero biltzen dira Santiagoko parrokian, adina eta prozesuaren arauera talde desberdinetan banatzen direlarik, (15-17; 18-21; 22-30). Guztiak 18 monitorea eta animatzaile gazte eta helduez osaturiko ekipo batek laguntzen dituen bidean.

Prozesu honetan zehar, ekintza garrantzitsua burutu dute aurtengo kursoan:

biztanleak, eta hurrek batez ere, pairatzen duten hilkortasun altuaren aurka borrokatu ahal izateko.



Gazte guzti hauek hurrengo hau irakatzu digute: Gazteak 'poteatzeko' baino gauza gehiagotarako ere mobilizatzen dira.

100 gazte inguruk, 'Manos Unidas' elkartek Makak herriak (Kamerun) duen proiektua finantzatzeko asmotan, diru laguntzaren bilatzeari ekin diote. Makak eta bere inguruko 42 herriek, guztira 25.000 pertsonetako biztanlegoa osatzen dutelarik, ez dute osasun zentru bakar bat ere, afrikar kontinenteko eskualde pobre honetan eragiten duen hainbat zailtasun eta arazori aurre egiteko.

Gazte ermuar hauek, Jesukristori jarraitzeak geure munduan azkenengo mailan daudenekin solidarioak izatera bideratzen dituenaz jakitun izanik, ez dute zalantzarik izan, eritetxe berriaren eraikuntzarako euren ahalegina, denbora eta dirua ezkeintzeko orduan, Makakeko

Lana 'hirugarren mundua' deituriko arazoaren inguruan egindako erreflexio ospakizun batez hasi zen, beronek errealitate honekiko sensibilizatuarazi zituelarik. Bigarren atal batetan, Ermuko herriaren sensibilizazioari ekin zitzaion, kartel eta buzoi propagandaren bidez, proiektua azkenik, parrokia eta kontu bankario mailan egindako dirua, burutu zelarik.

Aipaturiko gazte hauen ahalegina eta ilusioa 400.000 pzt. baino gehiagoko diru bilteta bihurtu da, jasotako dirutza hau Makakeko biztanleen egoera latza konpondu ahal izateko laguntza haundikoa izango delarik.

Honetaz gain, burututako ekintza hau, erresponsabilitate, solidaritate, kolaborazio eta antolakuntza mailako esperientzia guztiz garrantzitsua eta aberasgarria gertatu da eurentzat, beronek, dudarik gabe, pertsona eta munduko gizakide moduan hazten lagundu dielarik.

Gazte guzti hauei zorionak opa dizkiegu euren burua lan honetan eskeini dutelako eta gainontzeko guztioi hurrengo hau irakatzu digutelako: gazteak 'poteatzeko' baino gauza gehiagotarako ere mobilizatzen dira.

ERMUKO ELEIZA